



Felipe Uriarte
Camara (*)



Alpeetako hiru harribitxi

■ HEko ertza eta IEko espologia



■ Finsteraarhorn 4273 m

Edozein tokitatik ikusita, *Finsteraarhorn* mendiak itxura ederra du, harroa, zorrotza, piramide erregularra bezala agertzen zaigu. Mendi zorrotz guztiak antzera, ez dago bide errazik *Bernako* goi lurretako (*Oberland*) gailurrik garaienaren kaskora heldu ahal izateko. Hiru dira inguratzen duten glaziarrak: *Fieschergletscher* hegoaldean, *Finsteraargletscher* ekialdean, eta iparraldean, berriz, *Unterer Grindelwaldgletscher* glaziarra. Biderik errazena hegomendebaldeko malda glaziarra jarraitzen du *Huggisattel* lepora (4088 m) heldu eta hemendik aurrera ipar-ekialdeko ertzetik gora jo behar da. *Huggisatteleraino* marrazten den bidea ez da zaila, baina handik aurrera hirugarren graduko zailtasunak aurkitu daitezke: harkaitza, elur edo izotzezko zeharkaldi eta korridore motzak, eta haizeak sarri gogor jotzen du. *Finsteraarhorn* toki guztietatik urrun dago, oso urrun. *Finsteraar* aterpera iristeko, nagusiki hiru bide daude eta hirurak luzeak bezain ederrak: *Jungfraujoch*, *Grimselfass*, *Fieschergletscher*.

(*) **Felipe Uriarte** (Pasai Donibane 1944). Gaur egun Gaintzan Aralarko Mailope eta Oñati artean bizi da. Goi mendiko gidaria U.I.A.G.M. (Mendi Gidarien Nazioarteko Elkarte). Enpresa antolakuntzako goi-mailako ingeniari industrial. 1976an MENDIAK ETA HERRIAK mendi gidarien elkarte sortu zuen beste kide batzuekin batera eta harrezkero enpresa kudeatu eta zuzentzen du. Mendiaren historia luzea du lerro gutxitan laburbiltzeko. Munduko mendigune ezagunenak bere bizitzaren parte garrantzitsuenak bihurtu dira aspaldidanik; Pirinioak, Alpeak, Andeak, Patagonia, Himalaia eta beste hainbat mendikate ezagunetako mendietara hamaika espedizioetan, Tximist esate baterako, partaide, bultzatzaile eta antolatzaile aktiboa izan da.



■ Finster gailurretik hurbil

Jungfraujocheko bidea, biderik mendea da, baina poltsikorako garestiena bertara doana, baina hartu behar baita. Motzena izan arren, bospasei ordu behar dira, Jungfraujochetik Aletschgletschereraino jaitsi, Grünhornlucke lepoa igaro eta sei bat ordu beste ondoren, aterpera helduko gara. Fieschergletscheretik gora da beste aukera, Fietsch (1049 m) herritik abiatu, eta Eggishorn (2926 m) teleferikoa hartuta, glaziarrera jaitsi behar da, hala ere ez da batere samurra glaziar horretatik bide garbia asmatzea. Biderik luzeena Grimsel mendatean hasten da, Oberaarsee (1345 m) urtegitik abiatu, Oberaargletscher igo Oberaarjoacheraino (3200 m) eta bertan, hormari erantsita dago Oberaarjoch Hut aterpea. Galmigletscheretik Fieschergletschereraino jaitsi eta handik gora Finsteraar aterperaino, hiru glaziarrak gurutzatuz 8-9 orduko lan luzea eta ezin ederragoa.

Hiru bideen artean bat aukeratu behar eta luzeena hautatu genuen Cesar, Alejandro eta hirurok. Berghaus Oberaar aterpe ederrean ondo lo egin ondoren, goizean goiz abiatu ginen Oberaar Gletscher gora. Aurretik egindako altuerarako egokitze lanak lagun, lau ordu eta erdietan Oberaarjochen geunden, bertatik Oberaarjoch Hut gure gainean horman erantsita begi-bistan genuela. Berehala behera jo genuen, Studer eta Garmigletschereen pitzaduretan barrena eta laster batean ginen Fieschergletscherekin bat egiten duen bidegurutzean. Honen ezker ertz orografikotik gora eta pitzadurak saihestuz, pare bat ordutan heldu ginen aterpearen ondora. Finsteraarhorn Hut aterpea (3048 m) 2006an berritu zuten, polita eta ederra den aterpe zaharra, nortasun handiko suitzar Alpeetako Hut tipikoa. 2005eko udazkenean aterpe zaharra desegin, dena behera jaitsi eta 2006ko udarako aterpe berria abian zegoen. Aterpe berri honek erosotasun guztiak biltzen ditu, logela bikainak, beroa eta eroso da, modernoa oso.

Goizeko lauretan abian geunden, beste kordadekin lehia txikian. Dozena bat kordada bai eta denok nahi genuen aurretik joan, jakin bagenekien oso atzean ibili ezker, azken ertzean denbora asko galduko genuela gailurretik datozen soka-taldeekin gurutzatzeko arriskua genuelako. Egunsentirako hego-mendebaldeko ertzean dagoen puntua, Früstuckplatz izenez ezaguna (3616 m), gurutzatu genuen,

Tres piedras preciosas en los Alpes

FELIPE URIARTE, veterano y afamado alpinista y guía de montaña, nos detalla las ascensiones a tres piedras preciosas de los Alpes. La primera de ellas es el Finsteraarhorn, cima de los Alpes berneses, ubicada cerca de los cantones suizos de Valais y Berna, siendo el noveno en altura de los cuatromiles. Posteriormente, situado cerca de la frontera de dichos cantones, nos narra la ascensión a la cima del Aletschhorn que se encuentra completamente en territorio valaisano. Rodeado de interminables glaciares y de míticos cuatromiles, la elegante pirámide del Aletschhorn se alza estratégicamente, sobre uno de los lugares más impresionantes de los Alpes Berneses. Y para finalizar, nos transporta a los Alpes peninos en el mismo corazón del macizo del Mischabel para contarnos la ascensión al Rimpfischhorn, bonito pico, abrupto, con una cresta llena de gendarmes, de un aspecto diabólico.

gosaltzeko leku aproposa, arriskutik at, aterpetik abiatu eta bizpahiru ordutara alpezaleok ohi dugun moduan geldialditxo egiteko tenorea. Oraingoan, aldiz, ez ginen gelditu, une ona irudituz zitaigun hainbat soka-talderi aurrea hartu eta gorantz jarraitzeko. Huggisattel lepora iristean (4088 m), igoera erabat aldatzen da, bai zailtasunez, baita estiloan ere. Bideak malda glaziar erraza zeharkatuz ondo egin genuen, baina Huggisattetik aurrera, ipar-ekialdeko ertz fin eta zailak bidea zailtzen du: harkaitzak, korridore txikiak, zeharkaldiak, izotzeko pausoren bat. Liburuek puska honi PD edo II gradua ematen diote, baina ez dago fidatzerik, zailtasuna hemen oso aldakorra baita. Gure kasuan III graduko oztupoak aurkitu genituen, eskalada garbi, ziarra eta ezin ederragoa osatuz.

Goizeko 9etarako gailur zorrotzean geunden gure tokia gureganatu nahian beste soka-taldeekin batera. Gailurretik bistak ezin ederragoak daude, batik bat guk izan genuen goiz garbi eta hotz hartan, Schreckhorn eta Lauteraarhorn gure mendeen, eta inguruko glaziarrak bere besoak zabaltzen dituzte mendi gailurra besarkatu nahian. Gailurrean berorik ez eta laster batean jarri ginen ertz zorrotzetik beherantz, emeki emeki gorantz zetozen soka-taldeei bidea libre utziz, aterpean edan behar genituen Grossen birrak gure buruetan dantzan.

■ *Oberaletsch* aterperako bidean, *Nesthorn* ezkerrean



■ HM bizkarreko irteteko korridorean

■ Aletschhorn 4195 m

Alpeetan harribitxirik baldin badago *Aletschhorn* duzue horietako bat, *Bernako* goi lurretako (*Oberland*) bigarren gailurrik altuena. Hiru dira biderik ohikoena gailur honetara heltzeko: lehena, *Oberaletsch Hutetik*. *Blattenetik* teleferikoz *Lochera* (2.094 m) eta hemendik zeharkaldi baten eginez, *Oberaletschgletcher* glaziarraren bukaera gurutzatu eta harkaitzean zulatutako bide harrigarri batez *Oberaletsch Hutera* (2840 m). Aterpe honetatik hego-mendebaleko ezproia da biderik ohikoena gailurrera igotzeko (1600 metroko desnibela!). Bigarren bidea, *Mittelaletsch* aterpetik abiatzen da. *Jungfraujo*etik zaindariarik ez duen *Mittelaletsch* aterpe edo bibakera eta hemendik hego-ekialdeko bide glaziarra hartu behar da. Bibak honetara heltzeko dagoen bidea luzea eta zaila da, hala ere primeran dago, Suitzako hainbat aterpe-bibak moduan, txukuna eta beroa. Azken bidea, berriz, *Konkordia* edo *Hollandia* aterpeetatik burutu daiteke. Aterpe horietatik saiatu daiteke, 3. graduko zailtasuna duen *Hasler* ezproitik. *Hollandia* aterpe zoragarriara heltzeko *Lötschental* bailaran dagoen *Fafleralp* herritik abiatu behar da, *Lang* glaziarra barne.

Biderik luzeena eta ederrena, *Hollandia* aterpetik atera, *Lötschenlücketik* alegia, *Sattelhorneraino* elurrezko 45 graduko ezproia gaintitu, *Klein Aletschhorn*, *Aletschhorn*, *Dreieckhorn* gailurretatik igaro eta *Konkordia Hüttera* jaistea da. Guztira 15 ordu oso bizkor ibilita, elurra eta izotza 50° desnibelean eta harkaitzean 3. graduko zailtasuna. Europako inguru glaziarririk handi eta zabalenean dago *Aletschhorn* kokaturik, eta *Aletschgletscher* da Europa kontinentalaren glaziarririk handiena, 25 km luzera, 900 m lodiera tokirik sakonenean duelarik.

Manu, Juanjo eta hirurok atzean utzi genuen *Belalp* hotela eta *Oberaletsch Hutera* daraman bidean geunden. Antzina, aterpe honetara zihonan bidea makurra zen, *Oberaletschgletcher* barne, pitzaduren artean itzulika, galtzeko erraz. Gaur egun, berriz, bide berria ez dago galtzerik, harrizko maldan zulatutako dago eta *Nesthorn* (3824 m) mendi ikusgarria beti gure aurrean. *Oberaletsch Hut* aterpe suitzar tipikoa da, egurrezkoa, toki ederrean eraikita, neurri txikikoa, garbia baino garbiagoa, afari onak eta oparoak eta munduko garagardorik onenak bere baitan gordetzen ditu. Hasieran, aterpean bakarrik geunden, baina beranduago beste soka-talde bat agertu zen, harrigarria benetan, abuztuaren erdi aldean eta lau milako ospetsu baten aterpean soka-talde bakarra



izatea. Ospetsua da bai *Aletschhorn*, baina baita ere urrun, eta gailurrerako bide errazik ez duenez, hemen soka-talde gutxi biltzen da. Aterpe bakoitzean bere ohiturak eta ordutegiak dituzte, baita honetan ere, eta zaindariarik goizeko ordu batean esnatu gintuen eta hurbildu orduko gosaria mahai gainean genuen ordu bietan. Abiatu eta *Oberaletschgletcher*erako bidearen bila genbiltzan fortunatu zitzaigun gau beltzean. Zabala da glaziarra, oso zabala, eta aurreko arratsaldean bidea nabarmena iruditu arren, ilunpean oso zaila egin zitzaigun bidea aurkitzea. Glaziarra lehorra dago, pitzadurak ondo ikusten dira, eta ez dago alde horretatik arazorik, baina itsu-itsuan gindoazen gau beltzean. Bat batean, argi ttipi bat aurrean agertu zitzaigun eta bertaratzean harkaitzean fosforitox margotutako argia zela ikusi genuen. Aurrera segi eta beste bat, eta horrela segidan makina bat argi-puntu, aterpeko zaindariarik puntuz puntu margotutako bidea glaziarrak zabalean barrena. Horrela, ez dago galtzerik! Zenbat maite izan genuen aterpeko zaindaria gau hotz, beltz eta lainotsu hartan!

Egunsentian, haizea eta elurra ari zuten bitartean, *Granitsporen* bizkarraren gainera iritsi ginen. Goizak ez zuen itxura onik, baina eguraldi ona iragarrita zegoenez, kranpoiak janzen hasi ginen. Goiza aurrera zihonan eta gure ustez eguraldiak hobera egingo zutenaren esperantzan animaturik geunden. Bidea hego-mendebaleko ertza edo bizkarretik gora ez du galtzerik eta erdian dagoen glaziarra gurutzatu ondoren, dena zuzen gora. Geroz eta gorago, geroz eta pikoago, inguru geroz eta ederragoa. Harkaitz ona, korridore tenteak, zeharkalditxoak, jolas ederrean gindoazen bakardade osoan, ez baitzegoen beste inor gure bide honetan. Zortzi ordu eta erdi behar izan genituen gailurreraino, lan handia, batik batik bide berdinetik aterpera itzuli behar genuela jakinda. Hala ere, gailurreko ikuspegiak merezi zuen, *Bernako* mendi-gailur ederrez inguratutako baikinak: *Jungfrau*, *Monch*, *Eiger*, *Gross* eta *Hinter Fiescherhorn*, *Gross Grünhorn*, *Finsteraarhorn*... guztiak gure aurrean bakardadearen altzoan, naturaren magalean. Jaitsiera luzea eta zaila egin zitzaigun eta erabateko kontzentrazio behar izan genuen batez ere goiko aldeko korridoretan eta erdiko glaziarraren. Luzea izan zen baita ere, gure garagardo handiari eman genion lehendabiziko tragoa aterpearen atarian eserita eguzkiaren beroak gure abentura txikia gozatzen zuelarik.

■ Rimpfischhorn 4199 m

Strahlhorn mendira abiatzen garen alpezale eta mendigidariok, *Strahlhorn* mendiak duen luzeragatik "extralong" edo XXL esaten diogu eta bertako talaiatik, ondo baino hobeto ikusi ahal izango du *Rimpfischhorneko* ekialdeko harkaitzezko horma sutan egusentiko eguzkipean. Gailurretik bertatik ere, aurrez aurre *Rimpfischhorneko* gailur harro eta dotorea. Eta irudi eder horiek begi ninietan txertatuta, alpezaleak ez du buruan besterik izango, *Rimpfischhorn* igotzeko aukerarik noiz izango duen amesten. Animalia prehistoriko baten irudia du mendiak, bere bizkar luze eta zorrotza hegotik iparralderantz luzatzen duela eguneko lehen eguzki printzetan. *Rimpfischsattel* leporaino (3985 m) bidea ibilaldi glaziarra da, teknikoki zailtasunik gabekoa, baina glaziarretan ibiltzeko teknika egokia eskatzen duena. *Rimpfischsatteleraino* hiru aterpetik heldu daiteke: *Berggasthaus Fluetik* (2618 m), bertara heltzeko *Zermattetik* bai oinez edo bi teleferiko erabiliz iritsi daiteke, *Täsch* aterpetik (2701 m), izen bera duen herritik eta azkenik, *Cabana Britaniatik* (3200 m), *Saas Fee* herritik *Felskinn* teleferikoan igo eta beste ordubete oinez *Britania* aterpera iristeko.

Zerua erabat izarturik zegoen Cesar, Alejandro eta hirurok *Britania* aterpea goizeko 3retan gibelean utzi eta *Allalingscherrera* jaisten hasi ginenean. Aurreko eguna ezin makurragoa izan genuen eta gure altuerarako egokitzea hobetu nahian 4000ko *Allalinhorn* mendi gailur erraza igo genuen. Gerora, eguraldi iragarpenak agindu bezala, egun zoragarria izan genuen eta *Rimpfisch* mendi ederra genuen gure zain. Gauez eta lauzpabost metroko tartez elkar loturik pitzadurak negoziatzen joan ginen, eta *Allalinpasseko* norabidea hartzen ari ginela, gure aurrean piztu zen *Rimpfischeko* ekialdeko horma eguneko lehendabiziko argi zipristinekin. *Allalinpasetik* tarte txiki batez beharantz egin behar izan genuen *Mellichgelschereruntz Rimpfisch* gure ezkerrean utziz. Eguzki ederra lagun glaziarretik gora egin genuen, kordada bakarra ginen *Britaniatik* abiatutakoa, baina bai *Fluetik* eta bai *Täsch Hutetik* kordada gehiago igotzen ari zirela ikusi

genuen. *Rimpfischsattelen* kordada gehienak gelditzen dira mokadu bat egiten, baita ere soka beste era batean lotzeko, hemendik aurrera igoera erabat aldatzen baita.

Elurrezko malda batek hego-mendebaleko korridorera eraman gintuen eta goraino heldu gabe korridorea utzi eta ezkererantz jo genuen. Harkaitz eta elurra gaintuz, mendiaren mendebalean zabaltzen den lepo batera heldu ginen eta bertatik berehala iritsi ginen hego-mendebaleko ertzera. Ertz honetako harkaitzak lehorrak zeuden, elurrik gabe, eta laster gaintu genuen igoeraren tarterik zailena, baita ederrena ere. Gailurrera iristea zoragarria izan zen, aurre-gailurretik igaro, eta ertz zorrotz bat dantza lasai batetik pasaz, *Rimpfischeko* gailur txikira heldu ginen. Beste soka-taldeekin geunden, halere gailur honek eskaintzen duen bakardade sentazioa handia da, hain da txikia eta zorrotza. Ikuspegi zabala eskaintzen du, *Monte Rosatik Weisshorn*eraino gure aurrean banan banan altxatzen dira *Valais* aldeko gailur ederrenak. Presarik ez, eta beste soka-talde guztiak utzi genituen alde egiten, horrela une bakartiak gozatu genituen gailur paregabe honetan. Hemendik *Britaniara* bidea luzea da, baina eguraldia alde genuen eta *Britaniako* garagardoa dastatzeko presarik gabe, jakin badakigu aterpeko zaindaria gure zain izango dugula "grossenbier" bat ederki baino hobeto ontziratzeko. Hau gozatua! □



■ Mendebaldeko lepo ondoren



■ Mellich glaziarrean, Matterhorn aurrez aurre